

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2011	R6/2014	2014/12/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2007ko kuotak itzultzea. Administrazio eskudunaren onarpena

Ebazpena: R 6/2014

Espedientea: 27/2011

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 19a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

ERAKUNDEA SLk (IFZ: LETRA-ZENBAKIA) Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 13.3 artikulua babesean planteatutako gatazka automatikoari buruzkoa; gatazka 27/2011 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da, eta Gabriel Casado Ollero dihardu txostengile gisa.

I. AURREKARIAK

1. 2011ko apirilaren 4an, ERAKUNDEA SLk (IFZ: LETRA-ZENBAKIA) aurkeztutako idazkia sartu zen Arbitraje Batzorde honen Erregistroan; idazki horretan, Arabako Foru Aldundiarekin (AFA) eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin (ZAEA) 2007ko ekitaldiko BEZaren itzultzeari lotutako eskumenaren inguruko gatazkaren planteamendua jakinarazten zuen.

2. Espedientetik, honako aurrekari hauek ondoriozta daitezke:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2011	R6/2014	2014/12/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2007ko kuotak itzultzea. Administrazio eskudunaren onarpena

a) ERAKUNDEA SL erakundeak ("ERAKUNDEA" aurrerantzean) lurralde erkidean (1. UDALERRIA) izan zituen egoitza soziala eta zerga-egoitza 2007ko urriaren 31ra arte. Egun horretan, Arabako Lurralde Historikora (2. UDALERRIA) lekualdatu zuen, eta bere eragiketa-bolumena sei milioi eurotik beherakoa izan zen 2006ko ekitaldian.

b) Erakundeak ZAEAREN aurrean 2007ko ekitaldiko laugarren hiru hilekoaren aitorten-likidazioa eta urteko aitorten-laburpena aurkeztu ondoren, ZENBATEKOA euroko konpentsatu beharreko saldo bat adieraziz, 2009ko apirilaren 14an jakinarazitako ebazpen baten bidez ZAEAK behin-behineko likidazioa igorri zuen, 2007ko ekitaldiko BEZarengatik konpentsatu beharrezko aitortutako kuotak bidegabekotzat aitortuz, uste baitu horiek bere zerga-egoitza berriari dagokion Administrazioaren aurrean kreditatu behar direla, izan ere, 2006ko ekitaldian guztizko eragiketa-bolumenak sei milioi euro gainditu ez dituenek (Ekonomia Itunaren 27. Bat. Hirugarrena artikulua), eta pertsona juridikoen zerga-egoitzaren aldaketak berehalako eraginak sortzen dituenek (Ekonomia Itunaren 43.7 artikuluan pertsona fisikoentzat aurreikusitakoa alderantziz aplikatuz), "2007ko 4. hiru hilekoari dagokion aitortpena hiru hilekoari datu guztiekin Arabako Foru Aldundian aurkeztu behar zen, haren araudia aplikatuz, baita 390 eredu ere, eta beraz, bertan biltzen den konpentsatu beharreko zenbatekoa bidegabekoa da".

c) Ondoren, 2009ko ekitaldiko urteko aitorten-laburpenean, 390 ereduan, erakundeak Arabako Foru Aldundiari eskatu zion bere alde zegoen saldo osoa itzultzeko, 2007ko ekitalditik zetozen ZENBATEKOA euro barne hartuz, aurreko ekitaldietako konpentsatu beharreko kuotatzat aitortuta baitzeuden.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2011	R6/2014	2014/12/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2007ko kuotak itzultzea. Administrazio eskudunaren onarpena

d) AFAk zergapekoari zerga-egoitza lekualdatu zuen unean bere alde zegoen BEZaren saldoaren itzulketa ukatu zion, uste baitzuen "Arbitraje Batzordearen 10/2009 (maiatzaren 15ekoa), 11/2009 (ekainaren 19koa) eta 12/2009 (ekainaren 19koa) zenbakidun ebazpenen arabera, eta era berean Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 10eko Epaiaren arabera, 2007ko azaroaren 1etik aurrera jasanarazitakoen gainean jasandako kuoten gehiegitzea itzultzea Arabako Foru Aldundiari bakarrik dagokiola, data hori zerga-egoitza Arabako Lurralde Historikora aldatu zen egunarekin bat etorritz".

Aurreko erabakiari berraztertze errekurtsoa aurkeztu zitzaion, eta 2011ko martxoaren 2an ezetsi egin zen, berriz adieraziz "enpresaren zerga-egoitza Arabako Lurralde Historikotik kanpo zegoen aurreko aldietan konpentsatu beharreko kuoten ez-onargarritasunaren jatorria Ituneko Arbitraje Batzordearen Ebazpenetan eta Auzitegi Gorenaren 2010eko martxoaren 3ko eta ekainaren 10eko Epaietan dago, bertan ezartzen baita Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kontzeptupean kreditu fiskalak lurralde batetik beste batera lekualdatzea bidegabekoa dela. Beraz, kuota kengarriak jasan ziren eta horren ondorioz zergadunaren aldeko saldoa sortu zen Administrazioari, kasu honetan Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, dagokio itzulketa egitea, 2007ko ekitaldian eta aurrekoetan Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko eskumena zuen administrazioa baitzen".

3. Arbitraje Batzordeak, 2014ko irailaren 22an egindako bilkuran, adierazitako gatazka izapide zedin onartzea eta eraginpean hartutako administrazioei jakinaraztea erabaki zuen, espediente osoa igor zezaten.

4. Arabako Foru Aldundiak 2014ko urriaren 31n helarazi zuen espedientea, eta ZAEAko zuzendari nagusiak idazki bat igorri zuen 2014ko azaroaren 4an;

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2011	R6/2014	2014/12/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2007ko kuotak itzultzea. Administrazio eskudunaren onarpena

bertan, Arbitraje Batzordeari eskatzen zion bere Erregelamenduaren 13.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz bi administrazioen arteko gatazka ez izapidetzea ebazteko, ZAEAk onartu egin baitzuen 2007ko ekitaldiko BEZa itzultzeko eskumena.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Eskumenen gatazka negatibo hau automatikoki planteatutzat jotzen da Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.3 artikularen ildotik, eta haren xedea da beren eskumenari esanbidez edo isilbidez uko egin dioten bi administrazioetako zein (Arabako Foru Aldundia alde batetik, eta ZAEA bestetik) den ERAKUNDEAK aurkeztu zuen 2007ko ekitaldiko BEZaren laugarren hiruhilekoaren aitorten-likidaziotik sortutako saldoa, ZENBATEKOA euroko zenbatekoa duena, itzultzeko eskaera ebazteko eskumena duena, erakunde horrek 2007ko azaroaren 1etik aurrera bere zerga-egoitza lurralde komunetik Arabako Lurralde Historikora lekualdatu baitzuen.

2.- 2014ko azaroaren 4an bidalitako idazkian, ZAEAk, ERAKUNDEAK (IFK LETRA-ZENBAKIA) aitortutako 2007ko ekitaldiari dagokion BEZa itzultzeko eskumena onartzen du, Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 10eko epaia ikusita, Arbitraje Batzorde honek gatazka honen berdina zen kasu batean eman zuen maiatzaren 15eko 10/2009 zenbakidun Ebazpenaren aurka jarritako 378/2009 errekurtsioan emandakoa, Auzitegiak honako arrazonamendu hau egiten baitu bertan:

“Subjektu pasibo batek zerga-egoitza lurralde jakin batean zuenean jasandako BEZaren kuotak lekualdatuko balitu bere zerga-egoitza berriari dagokion zerga-administrazioaren aurrean aurkeztutako aitorten-likidazioetara, horrek Ekonomia Itunean aurreikusitako "ordainarazteko" eskumena aldatuko luke,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2011	R6/2014	2014/12/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2007ko kuotak itzultzea. Administrazio eskudunaren onarpena

“ordainarazte” hori murriztu egingo litzatekeelako lehenago jasandako kuota-kompentsazioengatik. Gainera, zergapeko batek administrazio baten aurrean duen zerga-kreditua beste administrazio batera eramango balu, beste administrazio hori aberastuko litzateke lehenengo administrazioaren kaltetan, eta hori ez da bidezkoa; ondare-desitxuratzek sortuko lituzke horrek, eta horiek ez datoz bat Ekonomia Itunaren oinarri den zerga-baliabideen bidezko banaketaren printzipioarekin.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga berehala sortzen den zerga denez gero, subjektu pasiboak administrazio eskudun bakoitzean aurkezten dituen aldirako aitorten-likidazioetan sartu beharko ditu egoitza aldatu arte sortutako BEZak, eta, modu berean, ordura arte jasandako BEZak kendu beharko ditu (kertzeko eskubidea sortzen dutenak); horren ondoriozko diferentzia "garbiaren" arabera izango da administrazio bakoitzaren eskumen izango den "ordainarazpenaren" zenbatekoa".

Auzitegi Gorenak aipatu den 2010eko ekainaren 10eko Epaiari (oker baten ondorioz 9koa dela esaten da) ezarritako doktrina aztergai dugun kasuan ere aplikatzekoa dela nabarmena izanik, ZAEAk eskumena onartzen du eta Arbitraje Batzorde honi eskatzen dio "Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13. artikuluan xedatutakoa aplikatuz bi administrazioen arteko gatazka ez izapidetzea erabaki dezala, aipatu erakundeak konpentsatu beharrezkotzat aitortutako 2007ko ekitaldiari dagokion BEZa itzultzeko eskumena onartu duelako ZAEAk".

3.- Onarpen hori ikusirik, eta Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoa kontuan izanik, bidezkoa da ZAEAk eskatutakoa onartzea eta gatazka hau ez izapidetzea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2011	R6/2014	2014/12/19	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2007ko kuotak itzultzea. Administrazio eskudunaren onarpena

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- ERAKUNDEA SLk (IFK LETRA-ZENBAKIA) komunikatutako 27/2011 gatazka automatikoa ez izapidetzea, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko (1760/2007 ED, abenduaren 28koa) 13.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, aipatu erakundeari 2007ko ekitaldiari dagokion BEZa itzultzeko eskumena onartu duelako ZAEAk.

2.- Jardunen amaiera eta artxibatzea eta horretarako igorritako dokumentazioaren itzultzea agintzea.

3.- Erabaki hau erakundeari, Arabako Foru Aldundiari eta ZAEari jakinaraztea.